

**GETXOKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (ELZ) KUDEATZEKO
IRIZPIDEAK**

2022 urria

LEHEN TITULUA

1-. artikulua.- Xedea

Dokumentu honen xedea Getxo udalerrian ELZren prestazioa arautzea da.

2. artikulua: Aplikazio eremua

Agiri honetan azaltzen den zerbitzua Getxoko udal mugartean aplikatuko da Gizarte zerbitzuen 12/2008 Legean eta Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroaren 185/2015 Dekretuan xedatutakoaren arabera (1.2 fitxa).

3. artikulua: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa

ELZ laguntzeko eta prebentzioa egiteko zerbitzu bat da, eta haren helburua mendekotasun egoeran edo arriskuan dagoen erabiltzaileari laguntza ematea da, etxean egon dadin; etxeko eta arreta pertsonaleko laguntza eskaintzen zaio, eta horrek etxean bertan mugitzeko eta komunitateko ingurunean integratzeko aukera emango dio, isolamendu egoerak saihestuz.

Halaber, Getxo udalerrian eta modu mugatuan honakoei eman dakieke ELZ:

- a) Autonomo gisa baloratuak izan diren eta/edo aitortu gabeko menpekotasun gradurik ez duten helduak, babesgabetasun eta/edo bazterketa, isolamendu, abandonatze edo tratu txarren egoeran edo arriskuan daudenak.
- b) 85 urtetik gorako adinekoak eta % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna dutenak, autonomo gisa balioetsi eta/edo menpekotasun gradua aitortu gabe dutenak, eta gainbegiratzea behar dutenak norbere arretan eta laguntza etxeko eta/edo hezkuntza beharretan, eta ez dutenak familiaren eta/edo gizartearen laguntzarik edo horiek nahikoak ez direnean.
- c) Eriondoan dauden edo bizitzaren azken etapan zaintza aringarriak behar dituzten pertsonak, betiere erakunde sanitario edo soziosanitarioetan osasun laguntza iraunkorra behar duen osasun egoeran ez badaude.
- d) Adingabeak babesgabetasun egoeran edo arriskuan dituzten norbanakoak eta/edo familiak, betiere zaintzailea eriondo badago eta/edo menpekotasuna badu eta ezin baditu bete adingabeak zaintzeko betebeharrak eta horiek estaltzeko gizarte eta/edo familia sarerik ez badago.
- e) Udal baliabideetan bizi diren pertsonak (tutoretzapeko pisuak, etxebizitza komunitarioak edo gizarte bazterketa arriskurako tutoretzapeko etxebizitzak).
- f) Zerbitzu honen arreta jaso dezaketen pertsona guztiak, balorazio teknikoaren arabera.

4. artikulua: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren helburuak

Hauek dira zerbitzu honen helburuak:

- a) Autonomia pertsonala mantentzea edo hobetzea, okerrera joatea prebenitzea eta erabiltzaileen autonomi -galera orekatzea, laguntza partzial edo osoa emanez eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko, beraien burua zaintzeko beharrezkoak direlako, edota eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko.
- b) Ahal bada, pertsona ahalik eta denbora gehien etxean egoteko aukera ematea, bizi kalitate onargarriarekin, ostatu zerbitzu edo egoitza zentro batean sartzea atzeratuz edo saihestuz.
- c) Erabiltzaileen segurtasun sententzia indartzea.
- d) Erabiltzailearen laguntza sare soziofamiliarra osatzen duten zaintzaileei babesa eskaintzea eta haien arreta lanetan modu partzialean laguntza ematea, beren garapen pertsonal, profesional eta sozialerako baldintza egokiak izan ditzaten.
- e) Erabiltzailea normalean artatzen duen zaintzaile nagusia behin-behinean ordezkatzeko, hura aldi batez egon behar ez denean.
- f) Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska dezaketen premiazko egoerak detektatzea.
- g) Erabiltzaileak beraien komunitate inguruan gizarteratzea erraztea eta isolamendu eta/edo bazterketa egoerak ekiditea.
- h) Adinekoren zaintza osatzea beraien guraso edo tutoreek modu egokian zaindu ezin dituztenean, eta arrisku edo babesgabetasun egoera posibleak detektatzea.
- i) Askotariko faktore psikiko, fisiko eta sozialek sortutako krisi egoeretan dauden familien elkarbizitza hobetzea eta horien arriskuak prebenitzea.

5. artikulua: Jarduteko printzipioak

ELZren prestazioa arautuko dute Gizarte zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7. artikuluan ezarritako printzipio orokor hauek: erantzukizun publikoa, unibertsaltasuna, prebentzioa, normalizazioa eta gizarteratzea, parte-hartzea, osotasuna, osagarritasuna, inklusioa, berdintasuna eta ekitatea, kalitatea eta hizkuntza eskubideak erabili ahal izateko bermea.

Aurreko apartatuan ezarritako oinarri orokorrez gain, ELZren prestazioa arautuko dute printzipio espezifiko hauek:

- a) Arreta jasotzen duen pertsonaren autonomia sustatzearen printzipioa: maila gorenean erraztuko da erabiltzaileak bere trebetasunak mantentzea, eta beharrezkoak baino ez diren laguntzak emango zaizkio, eta ez dira erabiltzailearen ordezkari geroz berak egingo dituzkeen zereginak.
- b) Arreta indibidualizatzearen printzipioa: laguntza motak eta horien intentsitatea erabiltzaileen beharren arabera definitzen dira, eta ahal den heinean, beraien lehentasunak kontuan hartuko dira eta ezinbestekoak izango dira hautatzeko eta partaidetza eraginkorrerako dituzten eskubideak eta zereginak definitzeko, eta etorkizunean behar berrietara modu progresiboan aldatu edo egokitzeko.
- c) Arreta malgutzearen printzipioa: ELZk modu eraginkorrean erantzungo die arreta jasotzen duen pertsonaren eta bere inguruko behar espezifikoak. Malgutasun horrek esan nahi du etengabe egokituko direla etxeko laguntzaileak egingo dituen zereginak, ordutegiak eta zerbitzuaren egunak.
- d) Arreta koordinatzearen printzipioa: bideak ezarriko dira ELZk eta beste zerbitzu batzuek garatutako esku-hartzeen koherentzia eta osagarritasuna bermatzeko, bereziki etxean ematen direnetan (etxeko ospitaleratzeak, lehen mailako arreta, erizaintza zaintzak eta abar) eta komunitatean ematen direnetan (telelaguntza, laguntza tekniko eta teknologikoak, eguneko arreta, arnasa hartzeko formulak eta abar).
- e) Arreta laguntzaileen jarraikortasun eta erregularitasun printzipioa: zerbitzua antolatzeko formulak aplikatuko dira langileak gehiegi ez txandakatzeko edo langile gehiegik parte hartzea ekiditeko zerbitzuko askotariko zereginak egiten.
- f) Profesionaltasunaren printzipioa: ELZren prestazioan esku hartzen duten langileen jokaera profesionala, errespetuzkoa eta hurbilekoa izan behar da eta beharrezko gaitasuna eta ezagutzak izan behar dituzte arreta jasotzen duen pertsonaren beharrei erantzuteko eta "zereginen orriko" eginkizunak gauzatzeko eta zerbitzuaren behar berriak detektatu eta norbanakoaren behar eta lehentasunak hobeto betetzeko aldaketak proposatzeko.

BIGARREN TITULUA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I.KAPITULUA.- ZERBITZUAREN BARNEKO ETA KANPOKO PRESTAZIOAK ETA EZAUGARRIAK

6. artikulua. Zerbitzuaren barneko eta kanpoko prestazioak

6.1.- Zerbitzu honen barne daude prestazio hauek:

- a) Informazioa: Erabiltzaileei ahalbidetzea denbora eta forman eta modu egoki eta nahikoan eskuratu ahal izatea eskubideei eta zerbitzuei buruzko informazioa.
- b) Jarraipena: Aldizka ebaluatzea arreta pertsonalizatuko plana.
- c) Etxez etxeko arreta: Prestazio honekin norbanakoek laguntza osoa edo partziala jasotzen dute eguneroko jarduerak egiteko, bereziki elikadurarekin, jantziekin eta bizi diren etxebizitzako instalazioak mantendu eta garbitzearekin lotuta, eta antolamendua errazten da, hala dagokionean aurreko guztiak egiteko trebetasunak entrenatzea barne.
- d) Arreta pertsonala: Prestazio honekin erabiltzaileek laguntza osoa edo partziala jasotzen dute egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak egiteko eta/edo beraien inguruarekin lotzen dituzten (familia eta komunitatea) jarduerak egiteko. Era berean, eta hala badagokio, horien barne sartzen dira jarduerok egiteko trebetasunak entrenatzea.
- e) Gizarte laguntza: Prestazio honekin norbanakoak kualifikatutako langile batekin laguntza harreman batean parte hartzen du, eta horri esker autonomiaz ibili ahal izatea eta bere gizarteratzea hobetzen dira komunitatean, isolamendu egoerak ekidinez.
- f) Egunerokotasuneko oinarrizko ohiturak eskuratzeko laguntza.

I.ERANSKINA (24 orria)

6.2- Bestelako ez ohiko jarduketak:

Inguruabar bereziekin bat etorritz, modu mugatuan zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotzen diren beste jarduketa batzuk eskaini ahalko dira. Jarduketa horiek gauzatzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa izango da organo eskudunak berariazko baimena ematea.

- a) Higiene arazo larriak dituzten etxeetan garbiketa orokorrak egitea zerbitzu normalizatua ezarri baino lehen.
- b) Zerbitzuaren titularraren gauzak jasotzea, ekidin ezinezko arrazoi batengatik etxean ez dagoenean (larrialdia dela-eta ospitalean edo egoitzan egotea) eta horretarako laguntzarik ez duenean. Kasu horietan, etxera sartuko da gizarte langilea etxeko laguntzailearekin, betiere erabiltzaileak baimena emanaz gero.
- c) Giltzak gordetzea erabiltzailearen baimenarekin.
- d) Prestazio teknikoak.

- e) Etxeko lanak ez ohiko kasuetan eta preskripzio teknikoarekin bat etorritik, hala jasota baldin badago Arreta Pertsonalizatuko Planean, eta koordinatzaileak oniritzia ematen badu.
- f) Etxeko laguntzaileak agiriak prestatuko dituzten erabiltzaileak jaso ezin dituzten edo laguntza sarrerik ez duzten.
- g) Inguruabar bereziekin bat etorritik, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotzen diren beste jarduketak batzuk eskaini ahalko dira.

6.3.- Zerbitzu honen kanpo daude prestazio hauek:

- a) Etxez etxeko arreta eskusiboa
- b) Etxe berean bizi diren beste batzuei arreta pertsonala ematea, ELZren erabiltzaileak ez badira.
- c) Etxeko laguntza jarduketak, etxe berean bizi diren beste batzuei laguntzen dietenak eta ELZren erabiltzaileak ez badira.
- d) Konpainia eta paseatzea, betiere beste prestazio batetara joateko laguntzeko ez badira edo beste zerbitzu batzuekin bateragarriak ez badira (medikuekin hitzorduak, eguneko zentrorra joateko autobusa eta abar).
- e) Osasun arloko jarduketak, baldin eta langileek horiek emateko prestakuntza espezifikoa jaso behar badute (injekzioak jartzea, zundak maneiatzea, ultzerak eta eskarak tratatzea eta ezagutza espezifikoa, errehabilitazioa eta antzekoak eskatzen dituzten medikazio emateak).
- f) Etxean lan profesionalak egitea (margotzea, papera jartzea...).
- g) Artikulu honen 1. apartatuan zehaztu ez diren garbiketak.
- h) Etxeko langileentzat arrisku fisikoak sor ditzaketen zereginak.
- i) Ezarritako ordutegitik kanpoko zerbitzuak.
- j) Ospitale eta egoitza zentroetan zerbitzuak ematea.
- k) Kontratututako zerbitzuak libre dauden denboretan modu pribatuan horiek betetzea eta etxeko zereginak egitea.
- l) Zerbitzu teknikoaren zereginen orrian aurreikusita ez dauden bestelako zeregin guztiak, ezta ere beste administrazio batzuen eskumenekoak direnak.

7. artikulua.- Arnasa hartzeko aldagaia

Udalaren ELZren bidez ematen den aldi baterako laguntza da, eta menpekotasun egoeran edo arriskuan daudenekin bizi diren eta horiek zaintzen dituzten senideei zuzenduta dago, azken horiek atsedean hartzeko denbora izan dezaten eta beraien garapen pertsonal, profesional eta sozialerako baldintza hobekak izan ditzaten.

Helburu du arreta sare naturala osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea. Horretarako, honako hauek gauzatzen ditu:

- a) Aukera ematen dio zaintzaile nagusiarri denbora izan dezan etxetik kanpo jarduera zehatzak egin ahal izateko.
- b) Profesional adituen bitartez ziurtatzen du zaintzen den pertsonari arreta egokia ematen zaiola zaintzailea ez dagoenean.
- c) Laguntzen du mendekotasuna duten edo izateko arriskuan dauden pertsonak etxean eta inguruan geratzen.

ELZren aldagai hau emango zaie ofizioz ELZ lehen aldiz eskatzen dutenei eta Arnasa Hartzeko Zerbitzuaren irizpideetako betekizunak betetzen dituztenei.

8. artikulua: Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

1. ELZ orokorrean emango da onuraduna bizi den etxean, Getxoko udal mugartean.
2. Kontuan hartuta balitekeela onuraduna familia txandakatze egoeran egotea, zerbitzua etxe bat baino gehiagotan eman ahalko da agiri honen 10.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan. Kasu honetan, aldiak ez dira 15 egun baino gutxiagokoak izango.
3. Ez da zerbitzurik emango erabiltzailea bertan ez dagoela, 6.2.a/6.2.b artikuluan jasotako ez ohiko egoera salbu.
4. Arreta egunak:

4.1. Orokorrean zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da manu teknikoaren arabera.

4.2. Modu mugatu eta salbuespenezkoan, menpekotasun eta/edo babesgabetasun egoeran dauden pertsonen asteburu eta jaiegunetan zerbitzua eman ahal izango zaie norbere arretarako zereginetarako, manu teknikoaren arabera, eta betiere zeregin horiek egin ditzakeen gizarte edo familia sarerik ez badago.

Larunbat eta jaiegunetan garbiketa pertsonala eta otorduak egin daitezke, baina mugatuta, balorazio teknikoaren arabera eta oinarrizko gizarte zerbitzuen koordinatzailearen oniritziarekin. Hauei emango zaie:

- Senideen inolako laguntzarik edo gizarte laguntzarik ez duten mendeko pertsonen.

- Senideen laguntza duten, baina baldintza egokietan beharrezkoa duten laguntza eman ezin dieten mendeko pertsoneri.
- Beraien osotasuna edo hirugarrenena arriskuan duten pertsoneri.

Kasu horietan, gehienez, eguneko ordubeteko zerbitzua emango da. Hala ere, salbuespen gisa, gizarte langilearen balorazioa eta koordinatzailearen oniritzia kontuan hartuta, egunean bi ordura arte luzatu ahalko da mendeko bat baino gehiago bizi badira etxean.

Zenbait jaiegun, zubiak edo jaiegunarekin bat datozen zerbitzuak: aste berean jaiegun bat baino gehiago badago, zubi bat badago eta zerbitzu egun bakarra jaieguna bada, oinarrizko gizarte zerbitzuko gizarte langileak, zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuz eta, bereziki, garbiketa pertsonalerako edota otorduak egiteko bada aintzat hartuz, zerbitzua eman behar dela uste badu, betiere oinarrizko gizarte zerbitzuen koordinatzailearen oniritziarekin.

4.3. Jaiegunak dira Eusko Jaurlaritzak ofizialki izendatzen dituenak.

4.4. Arreta emateko gutxieneko maiztasuna astean egun batekoa izango da. Ez da hamabost egunean behingo zerbitzurik ezarriko.

5. Zerbitzuaren intentsitatea:

5.1. Zerbitzu prestazioaren denbora mugak ezarriko dira erabiltzaileen beharren ebaluazio indibidualizatuaren arabera.

5.2. Menpekotasun egoeran dauden pertsonen kasuan, zerbitzuaren intentsitatea zehaztuko da hileko zerbitzuen ordu kopuruan menpekotasun graduaren arabera eta agiri honen II. eranskinarekin bat etorritik, eta erreferentzia gisa hartuz abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua, Autonomia pertsonalerako eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituenak, Norberaren autonomia sustatzeari eta menpekotasun egoeran dauden pertsoneri arreta emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarrita daudenak.

5.3 Gutxienez 30 minutuko zerbitzua emango da.

II. ERANSKINA (26. orria)

6. Arretarako ordutegiak:

6.1 Zerbitzuaren ordutegi orokorra malgua da eta nagusiki 06:00etatik 22:00etara emango da.

6.2 Laguntza pertsonala emateko ordutegia ezarriko da eskatzailearen ordutegi ohiturak eta beharrak kontuan hartuta.

6.3 Etxeko laguntza eta gizarte laguntza prestazioetan ordutegiak ezarriko dira zerbitzuak ematen dituzten langileen eskuragarritasunaren arabera.

6.4 Egun berean ez dira emango erabiltzaileak jaso ditzakeen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren asteko ordu guztiak.

6.5 Greba egonez gero, dagokion araudian ezarritako gutxieneko zerbitzuak bermatuko dira.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

9. artikulua.- Erabiltzaileak zehaztea.

1. Zerbitzu honen erabiltzaileen profila bat etorriko da autonomia galdu dutelako edo zaugarritasun egoeran daudelako ohiko etxebizitzan bizitzen jarraitzeko egunerokotasuneko ohiko jarduerak egiteko aldi baterako esku-hartzea edo iraunkorra behar dutenen profilarekin. Horretaz gain, egoera hauetakoren batean egon beharko dira:

9.1 I., II. eta III. graduetako menpekotasuna aitortuta duten pertsonak edo menpekotasun arriskuan daudenak (Menpekotasuna baloratzeko baremoan 23 eta 24 puntu artean dituztenak) Gizarte Zerbitzuen euskal sistemaren esparruan

9.2 Izaera mugatuarekin eta manu teknikoak hala dioenean:

- a) Autonomo gisa baloratuta dauden eta/edo aitortu gabeko menpekotasun gradurik ez duten helduak, babesgabetasun egoeran edo arriskuan, baztertuta edo isolatuta daudenak edo tratu txarrak jasotzen dituztenak.
- b) Desgaitasun gradua aitortu gabe dutenak, 85 urte baino gehiagokoak edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutenak, zaintza pertsonala eta laguntza behar dutenak etxeko eta/edo hezkuntza arloko beharrak estaltzeko eta familiaren edo gizartearen laguntzarik ez dutenean edo horiek nahikoak ez direnean.
- c) Eriondoan dauden edo bizitzaren azken etapan zaintza aringarriak behar dituzten pertsonak, betiere erakunde sanitario edo soziosanitarioetan osasun laguntza iraunkorra behar duen osasun egoeran ez badaude.

- d) Adingabeak babesgabetasun egoeran edo arriskuan dituzten norbanakoak edo familiak, betiere zaintzailea eriondo badago eta/edo menpekotasuna badu eta ezin baditu bete adingabeak zaintzeko betebeharrak eta horiek estaltzeko gizarte eta/edo familia sarerik ez badago.
 - e) Udal baliabideetan bizi diren pertsonak (tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak edo tutoretzapeko etxebizitzak).
 - f) Zerbitzu honen arreta jaso dezaketen pertsona eta/edo egoera guztiak, balorazio teknikoaren arabera.
2. Eskaera egiten denean elkarbizitza unitate bereko hainbat pertsona onuradun izateko, zerbitzuaren titular bat izendatuko da eta berak ordezkatuko ditu onuradun guztiak. Hala ere, titularra hiltzen denean, egoitza zentro batera joaten denean edo beste etxebizitza batera lekualdatzen denean, elkarbizitza unitateko beste onuradun bat izan ahalko da ordezkaria.
 3. Titulartasuna aldatzen denean beharrak, egoera soziofamiliarra eta egoera ekonomikoa berriz ere baloratuko dira.

Edonola ere, aldeko gizarte txostena beharrezkoa izan beharko da eta horren manu teknikoak esan beharko du ELZ ezarri behar dela.

10. artikulua: Sartzeko betekizunak

Erregelamendu honen 9. artikuluan ezarritako egoeraren batean egoteaz gain, eskatzaileak sartzeko betekizun hauek bete beharko ditu:

10.1. **Administrazio betekizunak:**

a)Eskaera egin den unean erroldatuta egotea Getxoko udal mugartean eta bertan erroldatuta jarraitzea agiri honen 9.1.1 eta 9.1.2 artikuluetan aurreikusitako egoeretan.

Zerbitzua erabili ahal izango dute aurreko betekizuna bete ez arren, familiaren laguntza jasotzeko hainbat udalerritako etxeetan txandaka bizi direnek, baldin eta senideak Getxon erroldatuta baldin badaude.

b)Udalerrian benetako bizilekua izatea, norberaren edo zaintzaile nagusi gisa aritzen den senide baten etxean.

c)Bizkaiko Foru Aldundiak egindako menpekotasunaren balorazioaren ebazpena. Modu iragankorrean eskaeraren frogagiria onartuko da, baina ez zaie eskatuko 9.1.2 d) artikuluan jasota dauden onuradunei.

d) Bizkaiko Foru Aldundiak egindako desgaitasunaren ebazpena 9.2.b) artikuluan jasota dauden onuradunentzat.

10.2. Beharraren betekizunak:

- a) Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak edota instrumentalak egiteko laguntza behar izatea.
- b) Erabiltzailea bertan egotea eragozten edo larriki zailtzen duen egoeran ez dagoen etxe bat izatea, eta etxe hori erabiltzailearentzat edo etxeko langileentzat arriskutsua ez izatea.
- c) Beharrezkoa bada, ELZ-z gain, nahikoa laguntzak izatea etxean egoera egokietan egoteko.
- d) Erakunde sanitario edo soziosanitarioetan laguntza jarraitua eskatzen duen osasun egoeran ez egotea.
- e) Gaixotasun infekzio-kutsakor edo gaixotasun mental bat badu, dagokion tratamendua ez errefusatzea.
- f) Jokabidearen nahasmendurik ez izatea edo etxeko langileentzat arriskuak ekar ditzaketen portaerarik ez izatea.

11. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaz gain, etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Arreta Pertsonalizatuko Planean ezarritako edukiarekin eta intentsitatearekin bat datorren zerbitzua jasotzea.
- b) Zereginen programazioan parte hartzea.
- c) Prestazioaosatzen duten jarduerak eta ordutegia (zerbitzuaren maiztasuna eta esku-hartze bakoitzaren iraupena) zehazten dituen zereginen orriaren kopia bat izatea.
- d) Prestazioa aldatzea, etetea edo iraungitzea eragin dezaketen inguruabarren berri izatea.
- e) Zerbitzua ematen duen laguntzailea aldatzeko edo zerbitzuaren maiztasuna aldatzeko eskatzea, behar bezala arrazoituta.
- f) Zerbitzua EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzea.

12. artikulua. Erabiltzaileen eta haiekin bizi direnen betebeharrak

12.1- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaz gain, etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek eta haiekin bizi direnek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Zerbitzua emateko esku hartzen duten profesionali lana erraztea, laguntzea eta zuzentasunez eta errespetuz tratatzea, bai eta lanean ari direnean beren intimitaterako eskubidea bermatzea ere.

- b) Norberaren egoera sozioekonomikoa baloratzeko beharrezkoak diren agiriak ematea eta etxebizitzara sartzen uztea, balorazio hori eta jarraipen bisitak egin ahal izateko.
- c) Zerbitzua eman bitartean gertatutako gaixotasun kutsakorrek jakinaraztea, etxeko laguntzaileek beharrezko babes neurriak har ditzaten.
- d) Osasun erakundeetara joatea, osasun egoerak hala eskatzen badu.
- e) Ez eskatzea aurretiaz itundu ez den zerbitzurik ez eta udal ebazpenean jaso ez diren pertsonentzako arretarik ere.
- f) Etxean egotea ELZko langileak zerbitzua ematen duen bitartean, berariazko baimena eta manu teknikoa izan ezean.
- g) Zerbitzua etetea eragin dezaketen lekualdatzeen berri ematea aurretiaz.
- h) Udal teknikariei aurrerapen nahikoarekin jakinaraztea (betiere 24 orduko epea igaro baino lehen, egiaztatutako premiazko arrazoiak daudenean izan ezik) zerbitzuaren alderdiren bat aldatzea dakarten inguruabar pertsonalak.
- i) Esleitutako etxeko lanak eta lan pertsonalak egiteko beharrezko tresna eta materialak eskaintzea etxez etxeko laguntza zerbitzua emango duten langileei.
- j) Zerbitzuaren prestazioan antzemandako irregulartasunen berri ematea.
- k) Ez ematea etxeko giltzak gizarte zerbitzuei, ez zerbitzua ematen duen enpresari, ezta etxeko laguntzaileari ere, salbu eta gizarte txostenak hori egitea ezartzen duenean eta 6.2.2 artikuluan xedatutako kasuetan, horretarako baimena sinatu ondoren betiere.
- l) Etxean etxeko animaliak badaude, animalia horiek ez dute zerbitzua ematea zailduko eta ez dute zerbitzuaren prestazioan eraginik izango.
- m) Zerbitzua ematen duen langileari argibide egokiak eta eguneratuak ematea gainbegiratu beharreko botikei buruz, botikak gainbegiratzeko zerbitzua ematen den kasuetan.
- n) Zerbitzuaren prezioa adierazitako epean ordaintzea, baita esleitu diren baina egin ez diren zerbitzuena ere, baldin eta eskatzaileari egotzi beharreko arrazoiengatik eman ez bada, bai eta zerbitzua etenik dagoen kasuetan zerbitzua gordetzeagatik ere.
- o) Egoera sozio-ekonomikoan izandako edozein aldaketa esanguratsuren berri ematea, dagokion ordenantza fiskalean ezarritako baldintzetan.
- p) Ezarritako prezio publikoa / tasa ordaintzeko erabiliko den kontu korronteko zenbakia eta banku erakundea jakinaraztea.

- q) Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea mendekotasunaren balorazioa eta/edo desgaitasunaren balorazioa, hala badagokio, manu teknikoaren mende.

12.2.- Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eteteko edo azkentzeko prozedura hasiko da, agiri honetan araututako prozeduraren arabera.

III. KAPITULUA. SARTZEKO PROZEDURA

1. SEKZIOA. SARRERA ETA ONARPENAREN OHIKO PROZEDURA

13. artikulua.- Sartzeko eskabidea

Erregelamendu honetan araututako etxez etxeko zerbitzurako sarbidea egiteko interesdunak aurretik eskaera egin beharko du normalizatutako inprimakian eta Getxoko Gizarte Zerbitzuei zuzenduko die. Eskatzaileak sinatuta egongo da eta Getxoko Udalaren gizarte zerbitzuen edozein bulegotako erregistroan aurkeztuko da Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein formatan.

14. artikulua: Eskaerari atxiki beharko zaion dokumentazioa.

1.-**III.eranskina (27. orria)** agirian jasotako dokumentazioa eskatzaileari buruzkoa izango da, eta hala badagokio, bizikidetza unitateko gainerako kideei buruzkoa, edo eskatzailearen ezkontideari edo izatezko bikotekideari eta etxean bizi diren gainerakoei buruzkoa izango da, baldin eta eskatutako zerbitzuan etxeko laguntza zerbitzuak egin behar badira.

2.- Eskatzaileak ez badu nahi bere egoera ekonomikoa baloratzea edo froga bidez justifikatzen ez badu, uko egingo dio bere egoera ekonomikoa kontuan hartzeari, eta beraz, dagokion zerga ordenantzan zehaztutako zerbitzuaren prezio publikoa osorik ordaindu beharko du.

3.- Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikulua aplikatuz, herritarrek ez dute aurkeztu beharko I. eranskineko agiririk, baldin eta horiek administrazioak baditu. Horretarako, interesdunek dagokion agiriaren eguna eta aurkeztu den organoa zeintzuk diren adierazi beharko dute. Udal edo foru gizarte zerbitzuek agiri horiek bildu ezin dituztenean, berriz ere interesdunari eskatu ahalko diote aurkezteko.

4.- Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa ez balego osorik edo akatsak balitu, eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean aurkeztu dezala beharrezko dokumentazioa edo zuzendu ditzala hautemandako akatsak. Jakinaraziko zaio hori egiten ez badu, ulertuko dela eskaerari uko egingo diola. Salbuespeneko kasuetan dokumentazioa jaso ahalko da ELZren laguntzarekin zerbitzua hasi eta gero.

5.- Udalak eskatzailearen datuak egiaztatu edo bilduko ditu, eta hala badagokio, gainerako onuradunenak baita ere, elkarreragingarritasun bidez. Datu horiek bakarrik erabiliko dira agiri honetan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, eta hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko betekizunak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzeko.

6.- Eskatzaileak, edo hala badagokio, onuradunek, ez badute nahi udalak kudeaketak egin ditzan eragiten dieten datuak egiaztatu edo biltzeko, idatziz jaso beharko dute horren aurka daudela eta arrazoa behar bezala justifikatu beharko dute, eta beren kabuz aurkeztu beharko dute dokumentazioa.

7.- Datuak faltsutzen edo ezkututzen badira, zerbitzuaren eskatzaile izaera galduko da, eta hainbat erantzukizun ekar ditzake horrek.

15. artikulua.- Izapidetzea

Erabiltzaileen beharren ebaluazioa eta txosten soziala-proposamena egiteko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean jasotako zehaztapenei erreparatuko zaie.

A) BEHARRAK EBALUATZEA

1. Eskatzailearen beharren izapidetzea, balorazioa eta ebaluazioa udaleko Gizarte Zerbitzuen gizarte laneko teknikariek egingo dute, dagokion pertsonaren etxebizitzari dagokionaren arabera (edo hala badagokio, etxebizitza ibiltaria).
2. Halaber, aurkeztutako agiriak analizatuko dituzte eta alderdi hauek baloratzeko kudeaketa eta jarduketak egingo dituzte:
 - 2.1. Egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak egiteko laguntza beharrak, autozaintzarekin, ohetik jaiki eta ohera sartzearekin, janztearekin, oinez egitearekin, jatearekin, norbere burua garbitzearekin eta esfinterren kontrola mantentzearekin lotuta.
 - 2.2. Egunerokotasuneko jarduera instrumentalak egiteko laguntza beharrak, besteak beste elikagaiak eskuratu eta prestatzea, etxea eta sukaldeko gauzak garbitzea, arropa garbitzea, erosketak egitea, dirua erabiltzea, medikazioa kontrolatzea eta etxetik kanpoko eta etxe barneko joan-etorriak egitea.
 - 2.3. Egoera sozio-familiarra, bizi den pertsonekin eta gizarte inguruarekin duen harremana eta eskatzailearen arreta beharrei erantzuteko familia eta gizarte sarearen gaitasuna eta eskuragarritasuna baloratzuz.
 - 2.4. Etxebizitzaren egoera higiene, ekipamendu, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzekin lotuta, laguntza teknikoaren beharra eta etxebizitza kokatuta dagoen eremua.

2.5 Egoera ekonomikoa.

B) GIZARTE TXOSTENA-PROPOSAMENA

Udaleko Gizarte Zerbitzuen Gizarte Laneko zerbitzu teknikoek nahitaezko gizarte txostena egingo dute eta hauek zehaztuko dituzte:

1. Zerbitzura sartzeko betekizunak betetzen dituela eta eskaera aurkeztu duela.
2. Hala badagokio, betekizunak ez betetzeko salbuespenaren arrazoitutako proposamena.
3. Eskatzailearen, eta hala badagokio, bere bizikidetzaren unitatearen inguruabar pertsonalak, familiakoak eta gizartekoak.
4. Esku-hartzearen onuradunak, proposatutako zerbitzu mota, ordu kopurua eta asteko egunak, zereginak eta zerbitzuaren iraupena.
5. Hala badagokio, ez ohiko zerbitzuen arrazoitutako proposamena.
6. Eskatzaileak zerbitzuarengatik ordaindu behar duen prezioa.
7. Hala badagokio, zerbitzua ukatzeko arrazoitutako proposamena.

16. artikulua. Ebazpena

1.- Eskaera aztertu eta baloratu eta gero eta gizarte txostena eman ondoren, organo eskudunari bidaliko zaio eta hark arrazoitutako ebazpena bidaliko du, eskatutako zerbitzuaren eskaera onetsiz edo ezetsiz.

2.- Ebazpena gehienez ere hiru hilabeteko epean eman beharko da eskaera udal erregistroetako batean sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori eten egingo da eskaerak zuzendu behar direnean, jakinarazpenaren eta egin beharrekoak egiten diren tartean, edo, bestela, emandako epea igarotzen denean edo Bizkaiko Foru Aldundiari nahitaezko txostena eskatu behar zaionean eskatzailearen autonomiaren balorazioari buruz, eta 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 22. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan ere gauza bera gertatuko da.

3.- Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro eta berriazko ebazpenik eman ez bada eta ebazteko betebeharra albo batera utzi gabe, ezetsizat jo ahal izango da eskaera interesdunak aukera izateko aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko.

4.- Onespen ebazpenak alderdi hauek jaso beharko ditu:

4.1. Prestazioaren emakida, hauek zehaztuz: iraupena, mota, intentsitatea eta zerbitzuaren kostua eta onuradunari dagokion ekonomia ekarpena.

4.2. Ebazpen proposamenean jasoko da, halaber, zerbitzu edo prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzean eskatzaileak, eta hala badagokio, bere legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak, betebeharra izango duela organo eskudunari jakinarazteko bere egoeran gerta daitezkeen aldaketak, baldin eta bere eskubideari eragin baliezaioke, eta horretarako 15 egun naturaleko epea izango du aldaketa gertatzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

5.- Ezespen ebazpenean zergatiak agertu beharko dira, eta honako kasu hauetan izango da bidezkoa:

5.1. 8. artikuluan jasotako betekizunak ez betetzea.

5.2. Eskatzaileak bere kabuz eta/edo senideen laguntzarekin eta/edo bestelako baliabide pertsonalekin eskaeraren arrazoi izan ziren beharrak modu egokian betetzeko aukera.

5.3. ELZ ez izatea baliabiderik egokiena eskatzailearen beharrak betetzeko.

5.4. Baloratzea zerbitzuak arrisku fisikoa eta/edo psikikoa ekar badiezaioke eskatzaileari edo zerbitzua eman behar duten langileei.

5.5. Behar bezala arrazoitutako beste kausa batzuk.

6.- Ebazpena legez eskatutako epeetan eta bertan jasotako formalitateei jarraituz jakinaraziko da, eta organo eskudunari haren kontrako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio, nahi izanez gero, edo ebazpena zuzenean administrazioarekiko auzien ordena jurisdikzionaletan aurkaratu ahal izango da, legez ezarritako epe eta baldintzei jarraituz.

7.- Onespen ebazpena zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko zaio baita ere, eta zerbitzu prestazioaren kontratuan jasotako epean gauzatu beharko du.

17-. artikulua.- Atzera egitea

Prozeduraren edozein unetan eta ebazpena eman baino lehen, eskatzaileak edo hala badagokio bere legezko ordezkariak, eskaera atzera egin ahalko du, eta hori egiteko bere nahia idatziz jasotzen duen edozein bitarteko erabili ahalko du. Hori gertatuz gero, espedientea artxibatuko da.

18-. artikulua.- Uko egitea

Prozeduran plazaren onuraduna aitortzeko ebazpena eman bada, erabiltzaileak edo bere legezko ordezkariak, eskubideari uko egin ahal izango dio nahia idatziz jasotzea ahalbidetzen duen edozein bitartekoren bidez.

2. SEKZIOA. PREMIAZ SARTZEKO PROZEDURA

19. artikulua: Premiaz sartzea

1.- Salbuespen moduan eta sartzeko ohiko prozeduran aurreikusitakoa baino azkarrago egin behar diren eta lehentasunezko arreta behar duten muturreko edo premiazko beharrei erantzuteko, udal gizarte zerbitzuek zerbitzu prestazioa hasi eta berehala ematen hasteko eskatu ahal izango dute ohiko prozedurako jarduketak hasi baino lehen, eta albo batera utzi gabe ondoren espedientea izapidetzea prozeduran aurreikusitakoaren arabera eta gehienez ere 15 egun naturaleko epean.

2.- Zerbitzu emakida behin-behinekoa izango da eta premiazko sartzea ematen duen ebazpena ondoren sarbide betekizunak berrestearen baldintzapean egongo da.

3.- Udaleko gizarte zerbitzuek hala badagokio erakunde emaileari jakinaraziko diote zerbitzuaren premiazkotasuna, eta hark 24 orduan gauzatu beharko du.

Premiazko egoeratzat hartuko da erreferentziazko gizarte langileak halakotzat jotzen duena irizpide hauen arabera:

- a) Premiazko egoera ustekabeko gertakariengatik gertatu bada (heriotza, ospitaleratzea, ohiko zainzailearen gaixotasuna, ospitaleko altak laguntzarik ez dagoenean eta abar).
- b) Arreta pertsonaleko beharrak asetzeko zerbitzuak badira (garbiketa, medikazioa kontrolatzea, otorduak), edo adingabeen beharrak egin behar diren familiak badira.
- c) Erabiltzaileak senideen laguntzarik ez badu bere beharrei erantzuteko.

IV. KAPITULUA. ZERBITZUAREN EGOKITZAPENA ETA JARRAIPENA

20. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

1.- Udaleko Gizarte Zerbitzuek zerbitzuak erabiltzaileen beharretara egokitzen diren aztertuko dute etengabe, eta dagozkion aldaketak proposatzeaz gain, proposatutako helburuak lortu diren ebaluatuko duten erabiltzaileekin aldizka zuzenean edota telefonoz harremanetan jarriko dira eta aldizka hitz egingo dute etxez etxeko laguntza zerbitzuaren laguntzaileekin.

2.- Aldizka ebaluazioak egin ahalko dira onuradunak eskatuta, erakunde emaileak eskaria aurkeztuta edo protokolo eta kontratuetan ezarritako moduan.

21. artikulua: Egokitze aldia

1.- Sartu eta hurrengo hiru hilabeteetan, onuradunak zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionamenduari egokitzeko aldi egongo dira. Gizarte zerbitzuen teknikariek eta/edo zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalak une oro jakinaraziko dizkiote sortzen diren arazoak eta egokitzapen ona lortzeko irtenbideak bilatuko dituzte.

2.- Erabiltzailearekin batera irtenbideak probatu eta gero erabiltzailea zerbitzuari edo zerbitzua erabiltzaileari egokitzea zaila denean, edo ikusten bada zerbitzuak ez dituela modu egokian betetzen eskatzailearen beharrak, egoera baloratu eta proposamen bat egingo da, eta aurretiaz txostena egingo dute oinarritzko gizarte zerbitzuek.

3.- Proposamena erabiltzaileari jakinaraziko zaio eta 15 eguneko epea izango du alegazioak egiteko.

4.- Alegazioak aztertu eta gero, behin betiko proposamena bidaliko zaio organo eskudunari, eta hark arrazoituta ebazpena emango du. Ebazten bada norbanakoa zerbitzutik aterako dela, irtenbiderik egonez gero, proposatu egingo da.

V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETEN ETA IRAUNGITZEA

22. artikulua: Zerbitzua etetea.

1.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua arrazoi hauengatik etengo da:

1.1 Erabiltzaileak 12. artikuluan ezarritako betebeharren bat bete ez duelako, horiek etete kausak izanez gero. Etetea ofizioz hasiko da.

1.2 10. artikuluan ezarritako betekizunen bat aldi batean galdu bada. Etetea ofizioz hasiko da edo erabiltzaileak hala eskatuta.

1.3 Onuraduna etxebizitzan ez badago gehienez ere urte naturaleko 3 hilabetean.

1.4 Behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuenengatik.

1.5 Ez delako baliabiderik onena manu teknikoan oinarrituta.

2.- Zerbitzua eteten bada onuraduna aldi batean etxebizitzan ez dagoelako, erabiltzaileek egoera horren berri eman beharko dute gutxienez 24 ordu aurretik, salbu eta ongi justifikatutako egoerak gertatuz gero, zeintzuetan larrialdi bat dela-eta, posible ez bada aurretiaz abisua emateko epe hori betetzea.

3.- Etetearen 3 hilabeteko epea gainditu eta erabiltzailea bere etxebizitzara itzuli ez bada, zerbitzua iraungiko da.

4.- Artikulu honetako aldiak luzatu egingo dira irizpide profesionalek egokitzen joz gero.

5.- Zerbitzuaren prezio publikoa ordaintzeari dagokionez eta artikulu honetan aurreikusitako inguruabarretan, dagokion zerga ordenantzak xedatutakoa beteko da.

6.- Etete kausaren bat gertatuz gero eta dagokion espedientea izapidetu ondoren eta organo eskudunaren ebazpenaren bidez, zehaztu egingo da zerbitzu

prestazioaren aldi baterako etetea, aurretiaz interesdunari entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari jakinaraziko zaio.

23. artikulua. Zerbitzua iraungitzea.

1.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua arrazoi hauengatik iraungiko da:

- 1.1 Erabiltzaileak, bere legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak idatziz zerbitzuari uko egitea.
- 1.2 Emakida ebazpenean aurreikusitako epea bukatzea, dagokion kasuan.
- 1.3 Erabiltzailea hiltzea.
- 1.4 Erabiltzailea beste udalerrri batera joatea, salbuetsita familia txandakatzea.
- 1.5 Onuraduna Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin bateragarria ez den beste baliabide edo programa batean sartzea.
- 1.6 Ez delako baliabiderik onena manu teknikoan oinarrituta.
- 1.7 Zerbitzua ematea eragin zuen behar egoera desagertzea.
- 1.8 Zerbitzua esleitzeko kontuan hartu diren datuak ematean, zenbait ezkutatu, edo gezurrezkoak adierazi izana.
- 1.9 Zerbitzua erabiltzeko eskatutako betekizunen bat betirako galtzea.
- 1.10 Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen agiriren bat ez ematea.
- 1.11 30 eguneko epean ez aurkeztea informaziorik bere egoera sozio-ekonomikoari buruz.
- 1.12 Etxera ez itzultzea aldi baterako etete epea igaro eta gero.
- 1.13 Zerbitzuko langileei fisikoki edo psikologikoki erasotzea.
- 1.14 Erabiltzaileek erregelamendu honen 12. artikuluan ezarritako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- 1.15 Arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egotea erabiltzaileentzat eta zerbitzuko langileentzat, aurretiaz udaleko zerbitzu teknikoek balorazioa egin eta gero.
- 1.16 Behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk.

2.- Erabiltzaileak iraungitze ebazpenaren ondoren berriz ere zerbitzura sartu nahi badu, eskaera berria egin beharko du eta erregelamendu honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

3.- Iraungitzea eta gero erabiltzaileak zerbitzuaren ordainketak egiteke baditu, zerbitzua berriz ere eman aurretik horiek ordaintzeko eskatuko zaio.

4.- Iraungitze kausaren bat gertatuz gero eta dagokion espedientea izapidetu ondoren eta organo eskudunaren ebazpenaren bidez, zehaztu egingo da zerbitzu prestazioaren iraungitzea, aurretiaz interesdunari entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari jakinaraziko zaio.

VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

24. artikulua. Etxez Etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa

1.- Erabiltzaileak ordaindu beharreko ELZren prezioa zehaztuko da unean-unean indarrean dagoen zerga ordenantzan.

2.- Ez zerbitzuko langileek, ez enpresa adjudikaziodunak onartuko dute dohaintzarik ezta ordainketa osagarririk, aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera. Enpresa adjudikaziodunak betebeharrak hori betetzen dela zainduko du.

25. artikulua: Finantzaketa

Zerbitzuen finantzaketa hauen kargura izango da:

1. Onuradunak zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du eta zerbitzu emakidaren ebazpenean ezarriko den ELZren zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa onartuko du zerbitzu prestazioa hasteko betekizun gisa.
2. Onuradunaren ekarpena kalkulatzeko bere kaudimen ekonomikoa kontuan hartuko da eta dagokion zerga ordenantzan horri buruz adierazitakoen arabera jokatu da.
3. Getxoko Udalak ordainduko du zerbitzuaren prezioa/orduko zenbatekoari onuradunak ordaindu beharreko diru-ekarpena/orduko kontzeptua kenduta ateratzen den zenbatekoa, eta aurrekoa kalkulatzeko dagokion zerga ordenantzan jasotakoari erreparatuko zaio.

26. artikulua: Zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzuari egindako ekarpena

1.- Erregelamendu honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileak ordaindu beharko du zerbitzuaren prezio publikoa. Hori kalkulatzeko kontuan hartuko da bere kaudimen ekonomikoa, dagokion zerga ordenantzan ezarritako terminoetan.

2.- Erabiltzailearen ekarpena ezarriko da dagokion zerga ordenantzan jasotako elementuen arabera.

3.- Kaudimen ekonomikoari buruzko datuak faltsutzen edo ezkututzen badira, eskaera artxibatuko da edo zerbitzua iraungiko da jada eman bada, albo batera utzi gabe egitate horietatik sor daitezkeen erantzukizunak.

4.- Erabiltzaile bakoitzaren ekarpen indibiduala ofizioz berrikusiko da edo erabiltzaileak edo ordezkariak hala eskatuta, baldin eta betekizun eta inguruabarrak alda ditzaketen aldaketak gertatuz gero, dagokion zerga ordenantzan ezarritako terminoetan.

VII. KAPITULUA. ARAU HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA

27. artikulua. Arau hausteak

Administrazio arau hausteak izango dira Gizarte zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeko legezko eta erregelamenduzko araudiaren aurkako ekintzak edo ez betetzeak, albo batera utzi gabe gainerako ordenamendu juridikoan jasotakoak.

28. artikulua.– Zehapenak

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau hausteak egiten direnean, Gizarte zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeko zehapenak aplikatuko dira.

ELZren erabiltzaileei egotz dakizkiekeen arau-hauste oso larriak gertatzen direnean, zehapen gisa metatu ahal izango da eskubidearen etetea sei hilabeteko epean, salbuetsiz eteteak babesgabetasun egoera sortu ahal izatea edo menpekotasun egoeran dagoen norbaiti horren ondorioz arretarik ez ematea.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

ELZren bidez martxan jarri ahalko dira askotariko esperientziak, jarduerak edo prestazio berritzaileak, erabiltzailea bere etxean eta komunitatean geratzea errazten dutenak.

BIGAREN XEDAPEN OSAGARRIA

Erabiltzaileei entregatzeko sortuko da ELZren kudeaketa irizpideen agiriaren zati bat.

HIRUGARREN XEDAPEN OSAGARRIA

Agiri hau aplikatzekoa izango zaie ELZn sartzeko eskaera berri guztiei.

I.ERANSKINA



ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN BETEBEHARRAK SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO TAREAS DEL SERVICIO



Izen-abizenak Nombre y apellidos	Data Fecha
--------------------------------------------	----------------------

LAGUNTZA PERTSONALA / ATENCIÓN PERSONAL	TITULAR/PERSONA BENEFICIARIA	
Ohetik jaikitzea – oheratzea / Levantarse - acostarse		
Altxatzea – esertzea / Incorporarse - sentarse		
Janztea – erantztea / Vestirse - desvestirse		
Ibiltzea (etxe barruan) / Andar (dentro de casa)		
Higiene pertsonala / Higiene personal		
Jaten ematea / Dar de comer		
Lagun-egitea – hitz egitea / Compañía - diálogo		
Etxeko istripuen prebentzioa / Prevención de accidentes domésticos		

EGUNEROKO OINARRIZKO OHITURAK ESKURATZEKO LAGUNTZA/ APOYO EN ADQUISICIÓN DE HÁBITOS BÁSICOS DE LA VIDA COTIDIANA		
Higiene pertsonalerako orientazioa: higiena, jantzia / Orientar en hábitos de cuidado personal: higiene, vestido		
Elikadura (orientazioa eta heziketa): Bizimodu osasuntsu eta aktiboen sustapena / Orientar en la alimentación: Fomento de estilos de vida saludables y activos		
Etxeko lanak (orientazioa) / Orientar en tareas domésticas		
Etxeko ekonomia (orientazioa) / Orientar en la economía doméstica		

OSASUN ETA KOMUNITATE LAGUNTZA / APOYO SANITARIO Y COMUNITARIO		
Medikuarenera laguntzea / Acompañar a la consulta médica		
Etxe barneko mugikortasunerako laguntza eta estimulazioa /Apoyo y estimulación en la movilidad dentro del hogar		
Medikazio-kontrol sinplea / Control de medicación simple (1)		
Dieta kontrola / Control de dietas		
Osasun-arazoak saihesteko oinarrizko praktika higieniko-sanitarioak / Prácticas higiénico-sanitarias básicas para evitar problemas de salud		
Etzetik kanpo laguntzea / Acompañar fuera de casa (2)		
Lagun egitea edo kudeaketak eta/edo erosketak egitea / Acompañamiento o Realización de gestiones y/o compras (3)		
Oinarrizko estimulazio kognitiboa / Estimulación cognitiva básica		

EGUNEROKO ETXEKO LANETAN LAGUNTZEA / APOYO MENAJERO COTIDIANO		
Garbiketa / Limpieza		
Egongela garbitzea / Limpieza del salón		
Logela garbitzea / Limpieza de dormitorio		
Komuna garbitzea / Limpieza de cuarto de baño		
Sukaldea garbitzea / Limpieza de cocina		
Korrikoreak garbitzea / Limpieza de pasillo		
Balkoiak garbitzea / limpieza de balcones		
Harrikoa egitea / Limpieza de vajilla		
Janaria prestatzea / Elaboración de comida		
Gosaria prestatzea / Hacer el desayuno		
Janaria prestatzea / Hacer la comida		
Afaria prestatzea / Hacer la cena		
Zaborra edukiontzietara botatzea / Tirar la basura a los contenedores		
Ohea egitea: sabanak aldatzea / Hacer la cama: cambio sábanas		
Arropa lisatzea / Planchar la ropa		
Arropa garbitzea – lehertzeko esekitzea / Lavar – colgar la ropa		
Arropa edo etxeako konponketa errazak / Arreglos sencillos de ropa o casa		

BESTELAKO JARDUERAK/ OTRAS ACTIVIDADES		
Adingabeen zaintza eta arreta, bai etxean, bai ikastetxeetara laguntzeko / Cuidado y atención de los menores, tanto en el hogar como en acompañamiento a centros escolares		
Laguntza teknikoak atzematea / Detección de necesidades de ayudas técnicas		

Etxeko lanak egin beharreko kasu guztietan, urtean behin garbiketa orokorra egingo da

- (1) Medikamentuen kutxa antolatzea, astean behin blisterra jasotzea farmazian, medikamenduak hartzen direla berrikustea, errezetak jaso eta kudeatzea, medikuekin ezarritako hitzorduak kontrolatu eta jarraitzea, medikamenduak ematea ahotik, ondestetik eta azaletik, eta beharrezkoa denean aerosolak eta oxigenoa sartzea, eta familiak medikuen berrikuspenarekin eman ezin ditzakeen medikamentuak ematea. Beharrezkoa izango da baimen orria sinatzea.
- (2) Eguneko arreta zentrora, ikastetxeetara edo garraioetara joaten laguntzea edo horietatik jasotzea.
- (3) Administrazio eta/edo osasun izapidetzeak egitea: osasun txartela, blisterra, gizarte prestazioak eta/edo ekonomikoak, erosketak, banku kudeaketak, dokumentazio entregak, hainbat profesionalekin programatutako hitzorduak eta abar.

Etkez etxeko laguntzaileak bakarrik egin ahal izango ditu EELko gizarte-langileak adierazitako lanak. Erabiltzaileak edo bere familiak lan horien artean aldaketaren bat egitea beharrezkotzat jotzen badu, zerbitzuko gizarte langileari eskatu beharko dio

La auxiliar domiciliaria no podrá realizar aquellas tareas que previamente no hayan sido comunicadas por parte del/de la trabajador/a social del SAD. En caso de que la persona usuaria o la familia estime necesario un cambio de tareas, deberá solicitarlo al trabajador/a social del servicio.

Eskatzailearen edo/eta erreferentziako pertsonaren sinadura

Firma del/de la solicitante y/o de la persona de referencia

II. ERANSKINA



**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA
ZERBITZUAREN INTENTSITATEAK
INTENSIDADES DEL
SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO
(8.5.1 artikulua)**



IZENA	GEHIENEOA ORDU/HILEAN	GEHIENEOKO ORDUAK LEGEAREN ARABERA (1)
	AL-OR L-V (2)	
MENPEKOTASUN HANDIA III. GRADUA (3)	80 ordu (20 ordu /astean)	46-70
MENPEKOTASUN LARRIA II. GRADUA (3)	50 ordu (12, 5 ordu /astean)	21-45
MENPEKOTASUN NEURRITSUA I. GRADUA (3)	30 ordu (7, 5 ordu /astean)	Gehienez 20
MENPEKOTASUN ARRISKUA (BVD 23-24) (3)	24 ordu (6 ordu/astean)	-
MUGATUTA 85 urte edo gehiagokoak edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutenak, arreta pertsonala eta laguntza behar badute etxeko lanak egiteko	22 ordu (5, 5 ordu /astean)	-

Babesgabetasun egoeran edo arriskuan dauden adinekoak, baztertuta, isolatuta edo abandonatuta daudenak eta tratu txarrak jasaten dituztenak	22 ordu (5, 5 ordu /astean)	-
Eriondo daudenak edo zaintza aringarriak behar dituztenak (4)	40h	-
Adingabeak babesgabetasun egoeran edo arriskuan dituzten norbanakoak edo familiak	22 ordu (5, 5 ordu /astean)	-

- 1. ABENDUAREN 14KO 39/2006 LEGEA, MENDEASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA EMATEKO ETA AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO./ LA LEY 39/2006, DE 14 DE DICIEMBRE, DE PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PERSONAL Y ATENCIÓN A LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA**
- 2. SALBUESPENEZ GUTXIENEO ZERBITZUA EZAR DAITEKE LARUNBAT, IGANDE EDOTA JAIEGUNETAN. DENA DEN, EZINGO DU GAINDITU ASTELEHENETIK OSTIRALERA BITARTEAN DAGOEN ORDU-KOPURUA/ EXCEPCIONALMENTE SE PODRÁ ESTABLECER UN SERVICIO DE MÍNIMOS LOS SÁBADOS, DOMINGOS Y/O FESTIVOS. PERO NO PODRÁ SUPERAR EL NÚMERO DE HORAS RECOGIDO DE LUNES A VIERNES.**
- 3. MODU IRAGANKORREAN MENDEKOTASUNA BALORATZEKO FORU-EBAZPENA EGITEKO DUTEN PERTSONEI ERE ZERBITZUA EMANGO ZAIE; GEHIENEZ, 20 ORDU HILERO/ DE FORMA TRANSITORIA SE PRESTARÁ EL SERVICIO A LAS PERSONAS PENDIENTES DE LA RESOLUCIÓN FORAL DE VALORACIÓN DE LA DEPENDENCIA CON UN MÁXIMO DE 20 HORAS MENSUALES.**
- 4. SUSPERRALDI EGOERETAN ETA ZAINKETA ARINGARRIAK, ZERBITZUA EMATKO GEHIENEO DENBORA 3 HILABETEKOA IZANGO DA, ETA ONDOREN ZERBITZUAREN EGOKITASUNA BALORATUKO DA ETA ORDUAK BEHIN BETIKO MENDEKOTASUN MAILARA EGOKITUKO DIRA. / EN SITUACIONES DE CONVALECENCIA, EL TIEMPO MÁXIMO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO SERÁ DE 3 MESES, TRAS LOS CUALES SE VALORARÁ LA PERTINENCIA DEL MISMO AJUSTANDO LAS HORAS AL GRADO DE DEPENDENCIA O LA SUSPENSIÓN DEFINITIVA.**

Menpekotasuna duten pertsona bat baino gehiago bizi diren etxeetan, gehieneko ordutegia zehazteko batuko dira eskatzaileari dagokiona gehi senideari dagokion % 50, bere menpekotasun graduaren arabera eta manu teknikoan oinarrituta. **Etxe bakoitzeko 90 zerbitzu ordu jaso ahalko dira gehienez ere.**

ELZ erabiltzailearen beharren intentsitateari egokituko zaio erabiltzailea beste zerbitzu batzuetara joaten denean (eguneko arreta zerbitzua edo eguneko zentroa) edo Menpekotasun Legean jasotako prestazioren bat kobratzen duenean.

III. ERANSKINA



ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN ESKARIAREKIN BATERA AURKEZTU
BEHARREKO AGIRIAK
DOCUMENTACION A ADJUNTAR A LA SOLICITUD DE SERVICIO DE AYUDA A
DOMICILIO



ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR A LA SOLICITUD	
<input type="checkbox"/>	Etkez etxeko laguntzarako eskaera-orria. (DN.229). Hoja de solicitud de Ayuda a Domicilio (DN.229).
<input type="checkbox"/>	Ordezkaritzaren ziurtagiria, eredu normalizatuaren arabera egina, onuradunaren ordezkariak aurkezten baldin baditu eskaerak. /Acreditación de la representación según modelo normalizado en caso de solicitudes presentadas por representante de la beneficiaria
<input type="checkbox"/>	Indarrean dagoen NANaren, pasaportearen edo egoitza-baimenaren fotokopia. Fotocopia del DNI, pasaporte o permiso de residencia en vigor.
<input type="checkbox"/>	Bizikidetzta unitatean 16 urtetik beheragoko inor badago, famili liburua edo bestela zaintza edo tutoretzaren egiaztagiria/ Libro de familia en el caso de existir menores de 16 años en la unidad de convivencia o en su defecto, documento acreditativo de la guarda, custodia o tutela
<input type="checkbox"/>	Gizarte-segurantzako kartillaren edo Osasun-Txartel Indibidualaren fotokopia. Fotocopia de la cartilla de la Seguridad Social o de la Tarjeta Identificación Sanitaria.
<input type="checkbox"/>	Dependentziaren balorazioari buruz BFAk emandako ebazpena, edo beraren eskaeraren fotokopia. Fotocopia de la resolución emitida por la DFB en la relación a la valoración de dependencia o fotocopia de la solicitud de la misma.
<input type="checkbox"/>	Egaitasun agiriaren fotokopia/ Fotocopia del certificado de discapacidad
<input type="checkbox"/>	Osasun-txostena, eredu ofizialaren arabera (DN.212) eta medikazio jarraibidea.. Informe médico, según modelo oficial (DN.212) y pauta de medicación
<input type="checkbox"/>	Admistrazio prozeduren datuak kontsultatzeko edo egiaztatzeko oposiziorik esaren agiria, 16 urtetik gorako pertsona guztiek sinatutako eredu normalizatuaren arabera/ Documento de no oposición para la consulta o verificación de datos de procedimientos administrativos según modelo normalizado firmado por todas las personas mayores de 16 años.
<input type="checkbox"/>	INSSeko pentsioen ziurtagiria: INSSek bidalitako eskutitzaren kopia eta/edo azken bi hilabeteko bankuko mugimenduak kobrantza eratzeko edota erantzukizuneneko aitortpena erantsitako ereduaren arabera. Certificado de pensiones INSS: copia de la carta enviada por el INSS y/o movimientos bancarios de los últimos 2 meses para cotejar su cobro o declaración responsable según modelo adjunto.

<input type="checkbox"/>	Beste edozein diru sarrera motaren ziurtagiria (RGI, IMV, bestelako pentsioak, aseguruak, alderantzizko hipotekak)/ Certificado de cualquier otro tipo de ingreso (RGI, IMV, otras pensiones, seguros, hipotecas inversas, ...)
<input type="checkbox"/>	Etxebizitzaren alokairuaren egiaztatzea/ Justificante de alquiler de vivienda, en caso de que proceda.
<input type="checkbox"/>	Azken Errenta Aitorpenaren fotokopia edo errenta aitortza egitetik salbuetsita dagoela ziurtatzen duen agiria. (Bai laguntza zerbitzua eskatu duenarena bai berarekin bizi den familiarena). Fotocopia de la última Declaración del Impuesto sobre la Renta o, en su caso, certificado de estar exento de realizarla. (Tanto de la persona para la que se ha solicitado el servicio como de la familia con la que convive).
<input type="checkbox"/>	BFA ziurtagiria, azken 5 urteetako diru sarrerak, ondasunak, kontu korronteak, eta PEFZren datuak jasotzen dituena 16 urtetik gorakoak/ Certificado de la Diputación Foral de Bizkaia que incluya ingresos, bienes, cuentas corrientes y datos de IRPF de los últimos 5 años de los mayores de 16 años C/ Konporte,30 Teléfono 94 612 55 00 ALGORTA
<input type="checkbox"/>	Eredu ofizialaren arabera erantzukizuneko aitortza (DN.207), azken bost urteetako diru-sarrerak, ondasunak, higigarrien eta higiezinen kapitalak... jasotzen dituena. Ondasunen bat transmititu bada, hori ziurtatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu behar da. Declaración responsable, según modelo oficial (DN.207), de ingresos, bienes, capital mobiliario e inmobiliario... de los últimos 5 años. En caso de haber efectuado transmisión de bienes, se presentará fotocopia del documento que acredite dicha transmisión.
<input type="checkbox"/>	Azken 2 urtetako bankuko gordailuen ziurtagiria, eredu ofizialaren arabera (DN.223). Certificado de depósitos bancarios de los últimos dos años según modelo oficial (DN.223).
<input type="checkbox"/>	Ezkatzaileren eta zerbitzuaren onuradunen izenean dauden kontu korronte, diru-gordailu, balore higigarri eta abarren mugimenduen laburpena, azken 2 urteei dagozkienak/ Extracto de movimientos de todas las cuentas corrientes, depósitos dinerarios, valores mobiliarios, etc., a nombre de la persona solicitante y personas beneficiarias del servicio, correspondientes a los últimos 2 años
<input type="checkbox"/>	Bankuko kontuan zorduntzeko baimena (DN.224)/ Autorización de adeudo en cuenta bancaria (DN.224).
<input type="checkbox"/>	Gastu kengarrien frogagariak (etxebizitza alokairua, hipoteka kreditua)/ Justificantes de gastos deducibles (alquiler de vivienda, crédito hipotecario)
<input type="checkbox"/>	Udaleko Gizarte Zerbitzuek beharrezkotzat jotzen badute, dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dute. En caso de que los Servicios Sociales municipales lo estimen conveniente, podrá solicitarse documentación complementaria.

GIZARTE ZERBITZUAK/SERVICIOS SOCIALES

☎ Algorta 94 466 01 01 ☎ Romo 94 466 01 53 ☎ Andra Mari 94 466 01 30

Eredu normalizatuak eta erantzukizunpeko adierazpenak udalaren webgunean deskargatu daitezke www.getxo.eus (Getxon bizi / Gizarte Zerbitzuak / Tramiteen gida) edo dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuan eskatu daitezke.

Los modelos normalizados y declaraciones responsables pueden descargarse en la web municipal www.getxo.eus (Vivir en Getxo/ Servicios sociales/Guía de trámites) o pueden solicitarse en el Servicio social de base que le corresponda